ARTIKULU ZIENTIFIKOA

Lete eta Saratsaga baserriak (1804) Akademiaren itzala Jaizkibelgo artasoroen artean

Laburpena: Hemeretzigarren mendean, gudua zegoen arkitekturaren eremuan: alde batetik, Antzinako Erregimenetik zirauten gremio zaharkituak; bestetik, San Fernandoko Arte Ederren Errege Akademia, zeinak ez zuen etsiko estilo neoklasikoa behin betiko ezarri arte. Horren adibide dira Lete eta Saratsaga baserriak.

Hitz-gakoak: Juan Pedro Arnal; Jaizkibel; Lete eta Saratsaga baserriak; San Fernandoko Arte Ederren Errege Akademia.

Abstract: In the nineteenth century, there was a battle between union organization from the former regime, and the Academy, whose Architecture Section did not let up until architecture get free of the Baroque Style. The case of the houses of Lete and Saratsaga is an example of this.

Key words: Juan Pedro Arnal; Jaizkibel; Lete and Saratsaga houses; San Fernando Royal Academy of Fine Arts.



Lauren Etxepare, Iñigo Lizundia, Maialen Sagarna, Eneko Jokin Uranga

Arkitekto doktoreak, EHUko Arkitektura Saileko irakasleak

Jasotze data: 2017-11-10
Onartze data: 2018-01-05

Lan hau EHUko Arkitektura Ondarearen Biziberrikuntzarako (ARO2) Ikerketa Taldearen barruan egindakoa da eta «Herri-lengoaiak eta Estatu-arkitekturak» ikerketa-lerroan txertatzen da. Ez du inolako finantzaketarik jaso.

///

Hemeretzigarren mendearen hasieran, San Fernandoko Arte Ederren Errege Akademiari zegokion arkitektura-jarduera publikoa arautzea. Udal, kontzeju edo elizbarruti bakar batek ere ez zuen arkitektura-lanik eraikiko Madrileko erakundearen onespenik gabe. Gudu bat zegoen arkitekturaren eremuan: alde batetik, Antzinako Erregimenetik zirauten ofiziale-elkarteen egitura tradizional zaharkituak; bestetik, San Fernandoko Akademia, zeinak ez zuen etsiko harik eta Ilustrazioari zegokion estilo neoklasikoa ezarri arte, arkitektura, kutsu barroko orotik behin betiko askaturik (Bedat, 1974).

Ventura Rodríguez hil ostean (1785), Juan Pedro Arnal izendatu zuten Akademiako Arkitektura zuzendari. Arnalek Arkitektura Saila sortu zuen 1786an (Mesuret ,1966). Sail berriak ez zuen beste helbururik izango, Arkitektura, Churriguera eta Ribera bezalako artista barrokoen eraginez harturiko gehiegikeriazko bidetik aldentzea baino. Helburu gorenaren mesedetan, burokrazia koskor bat abiarazi zuen Sailak, ekimen publikoko proiektu ororen zentsura-zentro bilakatuz: Madrileko Alcalá kaleko Goyeneche Jauregian hamabostean behin batzarturik, Espainia osotik helduriko proiektuak aztertzen zituen sailaren batzorde iraunkorrak, haien egokitasunari buruzko txostena emateko: onespenezkoa, baldin eta akademiak ezarri asmo zuen lengoaiarekin bat egiten bazuten; alderdi batzuetan zuzendu beharrekoak, edota are, gaitzetsiak (García Melero, 1996).

Antzinako Erregimenaren eta Ilustrazioaren arteko talka, baina, Akademiatik aparte trebaturiko maisuen proiektuak aztertzerakoan egiten zen agerikoen. Orduan egiten baitzen nabarmen gremioen ikuspegi tradizionalaren eta despotismo ilustratuak ezarri nahi zuen lengoaia kultu eta nazioartekoaren arteko gatazka. Horren adibide dira Jaizkibelgo Lete eta Saratsaga baserriak, Pasai Donibaneko Udalaren ekimenez altxatutakoak. Bertako bi obra-maisuk egindako proiektua Akademian gaitzetsia suertatu ostean, Juan Pedro Arnalen proiektuaren arabera izan ziren 1804an eraikiak. Egia bada ere Carlos Sambricio irakaslearen *La Arquitectura española de la ilustración* liburuan aipatuak direla, sekula ez da izan haien berri gehiagorik (Sambricio, 1986: 19-22). Arnalen azken lanetarikoak dira, hura hil baino bi urte lehenago egindakoak, artean Akademiako zuzendaria zelarik. Lan honek Arnalen proiektua ematen du argitara, baita bi baserrietako baten argazkia ere, haien hondakinen kokapenaren berri emanez.

Pasai Donibane eta bi baserrien beharra

1794tik aurrera, Konbentzio Gerraren baitan (1793-1795) Moncey jeneral frantsesaren dibisio batek jazarria izan ostean, Pasai Donibaneko hiribilduak bakealdi oparoa bizi izan zuen, zeina Independentzia Gerra iritsi arte luzatuko baitzen (1804-1814). Portuaren jarduerari esker batik bat, hazkunde handia bizi izan zuen hiribilduak. Kontzejuak, herritarrentzako ogia bermatzeko helburuz, herri-lurrak artoa landatzeko baliatzea hartu zuen erabaki.

Aldiri, 2018, I, 33, 9-12, ISSN 1889-7185

Artasoroak Lete eta Saratsaga izeneko tokietan kokatuko ziren, Jaizkibelen, Pasai Donibaneko bokalearen ondoko itsaslabarren gainean. Bakarra beharrean, baserri bana eraikiko ziren, artoaz arduratuko ziren familien bizitoki.

1802an Fermin Iparragirrek eta Jose Isasak proposamen ekonomikoa aurkeztu zuten. Obra-maisuen proposamenak biek sinaturiko plano bat zekarren erantsita, bi baserriak plano beraren arabera eraikitzekoak zirela adieraziz. Ezinbestekotzat jotzen zuten laborariak eta haien senitartekoek abereak izatea, elikatzeko ez ezik, lurrak lantzeko eta ongarritzeko. Beharrezkotzat jotzen zuten halaber baserriak gela zabal eta egurastu bat izatea, artaburuak aletzeko eta aleak bertan lehortzen uzteko. Oin laukizuzeneko baserri bana proiektatu zuten, ehun oin luzekoa eta 28 oin zabalekoa, etxeak non kokatuko ziren zehazki adieraziz.

Behin eraikuntza-lanak esleituta, Pasaiako Kontzejuak baserrien proiektua igorri zuen San Fernandoko Arte Ederren Errege Akademiara, haren onespena eskuratzeko. 1803ko otsailaren 4an, Isidoro Bosarte Akademiako Idazkari Orokorrak Arkitektura Batzordea deitu zuen. Isasa eta Iparragirreren proiektua aztertu ostean, Batzordeak ezetsi egin zuen, itxura desegokia eta ulertezina zela argudiatuz[1].

Gaitzetsiriko proiektuak Batzordeko kideren baten esku gelditu ohi ziren, hark egokitu zitzan. Zeregin hori, Arkitektura zuzendariari zegokion gehienetan, hark baitzuen osperik handiena (García Melero, 1991). Halaxe aurkeztu zuen bere burua Juan Pedro Arnalek, orduko zuzendariak, beste proiektu bat egiteko, Isasak eta Iparragirrek ezarririko dimentsioak aintzat hartuz bainan indarreko lengoaiaren arabera garbituta. Arnalek 1803ko ekainaren 16an aurkeztu zuen bere proiektua, bai eta Batzordeak eragozpenik gabe onartu ere, haren zuzentasun eta itxura onak zirela-eta. Proiektua plano bakarrak osatzen zuen.

1804ko otsailaren 7an, Gipuzkoako korrejidoreak idatzia helarazi zuen Kontzejura, adieraziz Akademiako Zuzendariak ordezko proiektu berria egin zuela, etxeari dimentsio eta kokapen berak emanez. Kontzejuak, 1804ko maiatzaren 13an batzartuta, baserriak Arnalen proiektuaren arabera eraikitzea erabaki zuen[2].

Isasa eta Iparragirreren proiektua

Obra-maisuen proiektuak bi solairuko etxe bat garatzen zuen, eta konposizioari dagokionez, Gipuzkoako aro barrokoko baserrien itxura hartuko zukeen (1650-1790). Hori berrestera datoz obra-maisuen aurrekontuak jasotako zenbait akabera eta bitarteko: harrizko hormak kare-morteroz emokatuak zeudekeen, eta emokatu zurian, etxearen lau izkinetan eta leiho-ertzetan, hare-harrizko harlanduak ageriko ziratekeen, egoki ebakita eta trabatuta. Gainerako egitura-elementuak zurezkoak ziratekeen, eta gelen arteko barne-banaketak eskuz egindako adreilu zeramikazkoak.

Arnalen proiektua

Arnalek marrazturiko planoen arabera eraiki ziren azkenean baserriak. Planoak «Planta, Fachadas y Cortes de una casería»

1 San Fernandoko Arte Ederren Errege Akademiako Arkitektura Sailaren 175. batzarraren akta, 1803ko otsailaren 4koa.

2 Pasai Donibaneko Kontzejuaren Bilkuraren Akta, 1804ko maiatzaren 13koa.



du izenburu, eta Arnalek sinatua da, 1803ko ekainaren 6an (3. irudia). Beheko oinaren bi heren, arto aleak jaso eta gordetzeko ganbarari eskainiak ziren, eta gainerakoa, bi logelak, sukalde batek eta goiko solairura igotzeko eskailera batek osatzen zuten. Fatxaden konposizioa, apaingarrietan- eta, oso neurritsua da: altxatuek ez dute ageriko silarririk erakusten, eta harrizko zokaloa izan ezik, bere osotasunean daude zarpiaturik. Arnalek beharrezkotzat jo zuen baserriak argiztapen eta aireztapen egokia izatea: alde batetik, leihoak frantses eran ezarri zituen, beheraino urratuak alegia, eta bestetik, sei txoritoki zabaldu zituen teilatuan. Sukaldeko keak kanporatzeko, garaiko gidaliburuei jarraiki, kebidea ezarri zuen (Genneté, 1759). Baserria lurretik doi bat altxatua ageri da, eta harrizko zokaloan zehaztasun handiz adierazitako arnas zulo sail bati esker, airea ibiliko zen aleak biltzen ziren solairuaren azpitik, hezetasunak lehortuz.

Proiektua xumea zen. Izan ere, tradizio neoklasikoak hierarkia tipologikoa ezartzen baitzuen, eraikinaren betebeharraren araberakoa. Lantegi, fabrika edota aletegia bezalako eraikinei ez zien besterik eskatzen, egoki kokatuak, sendo eraikiak eta egoki banatuak egotea baino (Vidler, 1987).

Gibel solasa

Erregimen berri bat edota dinastia berri bat ezartzeko orduan ageri du sistema burokratiko batek anbiziorik gehien, aldaketa politikoa iragarriko duen lengoaia berria inposatzeko asmoz. Austriako etxekoen gainbeheraren azken aldian, Borboikoen gobernuek, Fernando VI.arenak eta Karlos III.arenak batik bat, erreforma-politika sakona garatu zuten, arlo guztietan garatu ere, Espainia, Europako potentzien artean leku nabarmenean kokatzeko asmoz. Erregearen autoritatea, oso murriztua baitzetorren aurreko erregealdietatik, berrezarria izan zen, eta estatu-makineria zaharkitua, presiopean lan eginarazita, ordura arte ikusi gabeko emaitzak ematera iritsi zen. Hori guztia ezinezkoa zatekeen, administrazioaren barneko organoak sendotu izan ez balira eta bizkorragoak bilakatu izan ez balira. Eredu berriak, noski, Borboikoek Frantzian prest jarririko monarkia burokratiko eta zentralizatzaileari erantzuten zion; hari jarraiki, arkitekto eta zaindari talde indartsua osatu zuen San Fernandoko Arte Ederren Errege Akademiak. Izan ere, despotismo ilustratua lurralde osoa mendean hartzeko gai izan zen, baita azken bazterra ere, zenik eta ezaugarri barrokorik mendreena ere ezabatu eta gustu klasizistarekin ordezkatzeko. Lete eta Saratsagako baserriak, Kantauri itsas bazterreko artasoroen artean eraikirikoak, horren adibide.

///

1. irudia ~ *Jaizkibelgo airetikako argazkia, bi baserrien kokapena enkoadraturik: Lete (ezkerrean) eta Saratsaga (eskuinean).*
Egilea ~ *Ezezaguna (Gipuzkoako Foru Aldundia).*

2. irudia ~ *Lete eta Saratsaga baserrien airetikako argazkia, 1956koa, eraitsiak izan baino urte gutxi lehenago. UTM30N koordenatuak: Lete 591081 (X), 4799553 (Y), 248 m (altitudea); Saratsaga 590893 (X), 4799335 (Y), 255 m (altitudea). Gaur egun, haien hondakinak besterik ez dira topatzen ahal.*
Egilea ~ *Ezezaguna (Gipuzkoako Foru Aldundia).*

3. irudia ~ *Lete baserriaren argazkia, hogeigarren mende hasieran.*
Egilea ~ *Ezezaguna. Lete baserriko azken biztanleen oinordekoek emandakoa.*

Aldiri, 2018, I, **33**, 9-12, ISSN 1889-7185

Bibliografia

Bédat, C. (1974): *L'Académie des Beaux-Arts de Madrid (1744-1808),* Publications de l'université de Touolouse-Le Mirail, Tolosa.

García Melero, J.E. (1991): «Arquitectura y burocracia: el proceso del proyecto en la Comisión de Arquitectura de la Academia (1786-1808)», *Espacio, tiempo y forma, Serie VII, Historia del arte,* 4, 283-348.

García Melero, J.E. (1996): «El control de la arquitectura española: la comisión de Arquitectura de la Real Academia de Bellas Artes de San Fernando (1786-1808)», *Bulletí de la Real Academia Catalana de Bellas Arts de San Jordi*, 10, 75-98.

Genneté, C.L. (1759): *Cahier Présenté a Messieurs de L'Académie Royale Des Sciences de Paris sur la construction et les effets d'une nouvelle cheminée*, Lambert, Paris.

Mesuret, R. (1966): «Documents et références sur Pierre Arnal, élève de l'Academie Royale de Toulouse et architecte de la Maison d'Albe», *Cahiers du monde hispanique et luso-brésilien*, 6, 73-81.

Sambricio, C. (1986): *La arquitectura española de la ilustración*, Consejo Superior de los Colegios de Arquitectos de España, Madril.

Vidler, A. (1987): *The Writing of the Walls. Architectural Theory in the late Enlightenment*, Princeton Architectural Press, New York.



Irudia ~ *«Planta Fachadas y Cortes de una Casería».*
Egilea ~ *Juan Pedro Arnal, 1803an (Pasaiako Udal Artxibategia).*